



## SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT, ESK ETA USAE SINDIKATUREK OSAKIDETZAKO HAUTAKETA ETA HORNIDURA PROZESUEN EGOERA NEGARGARRIA SALATU DUTE

*Osakidetzako Sindikaturek elkarretaratzea egin dute gaur goizean Ospitale eta Osasun Zentro ezberdinetan, behin-behinekotasun neurrigabea, kudeaketa tresnen pribatizazioa eta horrek giza baliabideen kudeaketa prozesuetan dituen ondorio larriak salatzeko, zerbitzu honetako langileen lana pikutara botaz.*

*Osakidetzak egonkortzeko EPEa 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebazteko legezko betebeharra zuen, 6 hilabete geroago ebatzi gabe jarraitzen du.*

Sindikaturek salatu dutenez, gaur egun Osakidetzako plantillari eragiten dioten hautaketa eta hornikuntza prozesu guztiak atzerapenak jasaten ari dira, eta kontratazio zerrendetan akatsak daude, kontratuen esleipenari eragiten diotenak. Gainera, horien kudeaketa kaotikoa izaten ari da, eta horrek eragin zuzena du Osakidetzako kudeaketa zerbitzuko langileen lan-baldintzetan.

· EPE: egonkortzeko EPEak 2024ko abenduaren 31n amaituta egon beharko luke, legeak ezartzen duen moduan. Sailburuak prozesu berriak iragartzan jarraitzen duen bitartean, plantillaren zati batek oraindik ez daki noiz hasiko den lanean bere lanpostuan, eta beste plantillaren zati batek ez daki noiz amaituko den bere kontratua langile finkoak lanean hasteagatik.

· Kontratazio-zerrendak: kontratazio-zerrendak kudeatzen dituen tresnaren (Deloitte) pribatizazioak kaosa eragin du zerrenden kudeaketan. Horrek eragin zuzena du kontratazioetan, eta pertsona batzuek eskubidea izango luketen kontratuak galtzea eragiten du. Horri deitzen diote batzuek “lankidetza publiko-pribatuaren onurak”.

· Lekualdatze-lehiaketa: Osakidetzak denbora darama lekualdatze-lehiaketa prozesurik deitu gabe, Osakidetzaren araudiaren beraren kontra. Gainera, berriki egin direnak kategoria jakin batzuetarako izan dira soilik, eta ez guztietarako.

Hori dela eta, SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT, ESK eta USAE sindikaturek elkarretaratzea egin dute Osakidetzako zentroen aurrean, berehalako konponbideak exijitzeko eta behin-behinekotasun tasa murrizteko eta prozesu ezberdinaren kudeaketa modu eraginkorrean antolatzeko, hori guztia langileen eskubide guztiak bermatuz.

Bilbon, 2025eko ekainaren 9an



## LOS SINDICATOS SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT, ESK Y USAE DENUNCIAN LA NEFASTA SITUACIÓN DE LOS PROCESOS DE SELECCIÓN Y PROVISIÓN DE OSAKIDETZA

*Los Sindicatos de Osakidetza se han concentrado esta mañana en los diferentes Hospitales y Centros de Salud para denunciar la temporalidad desmedida, la privatización de herramientas de gestión y las graves consecuencias que eso tiene en los procesos de gestión de los recursos humanos tirando por tierra el trabajo del personal de este servicio.*

*Osakidetza tenía la obligación legal de resolver la OPE de estabilización antes del 31 de diciembre de 2024, 6 meses después sigue sin resolverse.*

Los Sindicatos han denunciado que actualmente todos los procesos de selección y provisión que afectan a la plantilla de Osakidetza están sufriendo retrasos y hay errores en las listas de contratación que afecta a la asignación de contratos. Además, la gestión de los mismos está siendo caótica, lo que incide directamente en las condiciones de trabajo de la plantilla de este servicio.

· OPE: la OPE de estabilización debería haber finalizado el 31 de diciembre de 2024, tal y como establece la ley. Mientras el Consejero sigue anunciando nuevos procesos, parte de la plantilla sigue sin saber cuando se va a incorporar a su puesto de trabajo, y otra parte de la plantilla no sabe cuándo se va a finalizar su contrato por la incorporación del personal fijo.

· Listas de contratación: la privatización de la herramienta que gestiona las listas de contratación (Deloitte) ha provocado un caos en la gestión de las mismas. Esto tiene impacto directo en las contrataciones y provoca que haya personas que pierdan contratos a los que tendrían derecho. Esto es lo que algunos y algunas denominan los “beneficios de la colaboración público-privada”.

· Concurso de traslados: Osakidetza lleva tiempo sin convocar ningún proceso de concurso de traslados, en contra de la propia normativa de Osakidetza. Además, las que se han hecho recientemente han sido solo para unas categorías concretas y no para todas.

Por ello, los Sindicatos SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT, ESK y USAE se han concentrado frente a los centros de Osakidetza para exigir soluciones inmediatas y que se reduzca la tasa de temporalidad y que se ordene efectivamente la gestión de los diferentes procesos, todo ello, garantizando todos los derechos de las trabajadoras y trabajadores.

En Bilbao, a 9 de junio de 2025